

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gurutz Ganzarain Ansa

*Andoain,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Andoaingo Etxeberrieta auzoan jaio zen bost senideko familia batean. Gurasoak ere andoaindariak zituen. Ama oso pertsona jantzia omen zen musikan eta historian batez ere, eta aita gerra garaian preso izan zuten. Gerran, arreba txikiena hiru urterekin gaixotasun bat zela medio hil zitzaion eta gerra garaia nahiko gogor bizi izan zuten guztiaren ondorioz. La Sallen ikasi zuen eta eta Laborde anaiekin jarraitu zuen gero. Mekaniko ikasi zuen, baina bere benetako afizioa bizikletarekin karreran ateratzea zen. Oso ona zen horretan eta hainbat karrera irabazi zituen. Baina ezkondu zenean, utzi egin behar izan zuen lanean hasteko.

Zintak

AND-045

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-10-27
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon

AND-046

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-10-27
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Aita kartzelan zegoela, arreba hil

- **Erref:** AND-045/002
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra garaian, aita Ondarretako kartzelan sartu zuten; handik Burgosa eraman zuten, eta geroago Astorgara. Gerra garaian, Gurutz ama eta anaiarekin Donostian izan zen aste pare batez: orduko oroitzapenak kontatzen ditu. Donostiatik Zarautza joan ziren eta han bi hilabete inguru pasa zituzten. Aita Ondarretako kartzelan zegoela bisitatu zuten: han esan zion amak aitari alaba hil zela.</p>

2. Salataria eskua ematera, eta txapel gorriarekin futboleko jokatzera

- **Erref:** AND-045/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Gerra garaian, aita kartzelan egon zen; eta, Andoaina bueltatu zenean, bera salatu zuen gizona eskua ematera inguratu zitzaion; Gurutzen aita agur hari uko egin zion. Gerra garaian, "pelaioak" desfilatzen ibili ziren herrian, harrotuta. "Pelaioak" eta "margaritak" nola ibiltzen ziren aipatzen du. Etxean txapel gorri handi bat zeukaten, eta harekin baloi bat sortu zuen Gurutzek. Txapel harekin ibiltzen ziren futboleko auzoko mutilak.</p>

3. "Mutilak, urrutitik tiratzen dutela!"

- **Erref:** AND-045/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Belabietako borrokan izan ziren Gurutzen lagun batzuk, baina balio ez zuten armekin. Gerora udaletxean errieta egon zen akats harengatik. Belabietako borrokan egondako mutil bat ziztu bizian etorri zen Andoaina, aurkariak urrutitik egiten zutela tiro esaten. Desabantaila handia zegoen bi bandoen artean.</p>

Transkripzioa

- Gurutz, nola akordatzen zea zu hemen Andoaiñea edo bazetozela edo pixka bat aitzen izango zenuen nonbaitetik edo?
- Bai, bazatoztela bai, ta gaiñea esango dizut ixtoriya. Hemen bazan Joxe Beloki korrikalariya ta hoik jun zian, hoi ta bere lehengusuk, eta hoik danak, Belabieta jun zian reketian kontra. Ta gaiñea, gauz bat esango

dizut: nere lagun bat zan geo alkarrekin apaldu [...], zea Migel Ormazabal. Harek eraman zun eskopeta hamabikua ta hamaseiko kartutxuak ematen zitun, ta bakizu tiroik itteik ez. Ta Barriola zanak aiuntamentun "nei kontuz, gehiyo mutillak bialdu, zea, mendia eskopeta hamabikukin ta kartutxuk hamaseikuakin". Ez baizuen baliyo. Ta bronkan izugarrin aiuntamentun aittu ziala badakit. Nik ez nun ikusi hoi e? Haik harek beak esana. Nik harekin apaltzen nun geo askotan sozidadian ta. Harek istori asko kontatu zizkian. Ta haren lehengusua, Joxe Beloki, korrikalariya ona zan, Billabonatik Aiya ta korrika ibiliya. Ta hua in zun harek, Belabieta jun zian hoik ta reketiak urrutitik tiratzen, fusillakin haik eta hoik eskopetakin, ta horrek in zun korrika Billabona etorri. Ta Billabonan tranbia hartu ta Andoaiñea etorri. Ta tranbiatik jeitsi zan ta tranbiatik jeitsi zanian, "mutilla, mutilla" buillaka, "mutilla, mutilla; hoik urrutitik tiatzen dula, hoik urrutitik [...]". Ta handik urte batzuta, nik Joxe Beloki horri esan niyon "hi, Joxe", "zer?" ta "hik, Belabitik etorri hitzania, hik hau ta hau esaten huan" ta "hik nola dakik hoi?". "Nik hoi zakit, hi etorri hitzania ta tranbiatik etxea, ni han neolako mutil koskorra". Ta nik aitu [...], "bai, hala huan, nik hala esaten nun, urrutitik tiratzen da ta", beai esan niyon, ta urteta esan niyon nik beai hoi. "Hik nola dakik hoi?" ta "ni han nitxon etorri hitzania ta". Ta ordun beak esan zian, bai, Billabona etorri zala ta Billabonan tranbia hartu zula. Nik ez nekin nun hartu zun baiño harek esan zun nola hartu zun Billabonan, Andoaiñea etortzeko. Nik jeixten ikusi nun ta.

- Ta haik zer zeuden mutillan batzuk edo ahal zituen eskopetak eta?
- Eskopetakin eze itteik ez.
- Ahal zittuenak harrapatu?
- Ba momentu hartan zittuenak hartu ta mendia.
- Mestia.
- Ta haik fusillakin etorri ta fusillakin urrutitik, bakizu, danba tiratzen.
- Zuek desbentaja izango zenuen?
- Bua, alde ein in bihar korrika.

4. Euskaldunek adarrak omen zituzten

- **Erref:** AND-045/005
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Nazionalak altxa zirenean, arma gutxi zeuzkaten herrian, ezustean harrapatu zituen gerrak. Apaiz batzuek pistolarekin ematen zuten meza. Nafarrek euskaldunei buruzko uste okerra zuten gerra hastean: mutil nafar batek euskaldunen aurka egiteari buruz amari esandakoa kontatzen du.

5. Trenbideko gertaera gerra hasieran

- **Erref:** AND-045/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Erreketeak Andoaina Belabietatik barrena eta tren txikian etorri ziren. Tropa trenean zetorrela, trenbideko erraila kendu egin zuten eta gizon batek abisua eman zien trenekoei, makinista laguna baitzuen. Gerora, portaera ona eduki izanaren agiria eman zioten gizon hari.</p>

Transkripzioa

- Nundik etorri zian reketiak Andoain aldea?
- Reketiak? Hoik hemen Belabietatik barrena baiño beste... Nik alde in nun ordun hoik etorri baiño lehen e? "Así que" nundik etorri dian nik dakit hortik etorri ziala. Ta beste batzuk etorri zian tren txikin honea; ta gaiñea esango dizut, tren hartan zatorren soldadu pilla bat ta tren ferrokarrillekok in zuen railla kendu zuen ta nere lagun horren aittak, bijilantia zan perrokarril hortakua, ta errailla falta zanian, bere laguna mekanista zatorrena, "Joño! Barriola zatorren makinistan ta!" [...] Ta ze in zun korrikan jun ahal zun bidian ta trenan aurrian jarri ta eskukin hasi keiñuk itten. Ta harek hua ikusita geldittu ta hango kapitanak esan "a ver qué tiene ese señor?" ta horrek esan, Barriola horrek esan emen zion "no, no, es un amigo mío; ya tendrá algo cuando éste ha salido". Ta trena geldittu omen zun, ta "ze pasatzen da?", "hola ta hola, railla kenduta ziok". Ta ordun jun emen zian harea, ta geo horrek esan omen zion "bueno, rail hau jartzen laguntzen badiazue, makina mutillak [...] badizue, jarriko diagu", railla han emen zeon ba! Ta soldadu beak lagundu ta harek erakutsi, zea zan ba horko jefe itten zuna ferrokarril hortako, ta railla jarri, ta pasa zan trena hemen tropakin, honea etorri. Nik hoi ikusiya ez e? Nik orduako Zautza alde iña nitzan ta. Baiño nekin apaltzen zun mutill horren aitta zan hola.
- Ta harek makinista bere laguna?
- Makinista bere laguna ta harek ordun Karrika jun ta... Ta geo hari eman ziyon "un certificado de que buena conducta".
- Hara!
- "Claro", kondukta ona in zun harek eta.

6. Andoaingo karlisten jarreraren larritasuna

- **Erref:** AND-045/007
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra Andoaina iritsi aurretik, beldurra zegoen herrian. Zerrenda bat eginda zeukaten herriko karlistek Andoainen, familia bakoitzeko gizon bat fusilatzeke. Gerora, karlista haiek konturatu ziren egin zutenaren larritasunaz.</p>

Transkripzioa

- Hari Andoaingo beste batek esan ziyon, geo ordun, geo, hola kalia

ikusita, hoi baiño lehen e, hoi gertatu baiño lehen; "oaingo hontan Andoaiñen, ez dek familik lotuik be geldituko", "motel ze ai haiz esaten nei, nik oain dala, zea urtebete hontan andria hilla ta lutuakin nao", "ez, hiregatik ez diat esaten". Pentsa zazu, ze pentsamentu zauzken haik Andoaiñea ailleatzeko.

- Soldadu haik?

- Soldadu haik ez, Andoaingo batek.

- A.

- Soldadu haik geo, geo zian soldadu haik. Geoztikan zian soldaduk etorri, hoi gertatu orduko preparatzen hasik hemen karlistak eta jende hua.

"Oaingo hontan ez dek Andoain [...]". Zeatikan pentsa zazu, Andoaiñen, komandatzia oain "casa cultura" daon horretan zeon ta brigadak zeon soldaduk, Guardia Zibilletako brigada. Ta hue etorri zan Elixondon Restoran o taberna dao, hor plazan, elizan aurrekua; ta Elixondo zaharrana: "Oye, Elizondo, ¿qué pasa aquí, en este pueblo? Quinientos para fusilar y entre ellos cinco sacerdotes". Ta Elixondo zaharran hoi burubai heldu ta "hombre, hombre, por favor, no haga usted caso a esto, no haga usted caso". Pentsa zazu, famili bakoitzeako bat hiltzeko primatuta zauzken hoik. Hemengo jendiak, karlista jendiak.

- Nundik ateatzen zittuen ba, hainbeste etsai, hainbeste...?

- Bakizu, ordun errex [...] firmatu. Baiño geo, ze in deu guk pentsatzen hasi zianian, ordun komerik. Geo, plakatzen, plakatzen, plakatzen, ta geo zuloa beak'e. Nik izen ta guztik esango nittuke baiño ez dittut esan nahi, holako holako ta halako. Hemen.

- Herriko jendia bazan?

- Herriko jendia. Inbidiya, alkarri nundik izurratuko ziyoen. Baiño geo, kontuatu zian; katolikok zian batzuk eta "joño, ze in deu guk, ze in deu?". Erotuta ibilli zian ta! Erotuta. Esango dizut, nere anaiya zaharrenak, ni baiño lau urte gehiyo, oaindik bizi da. Ta hua zeon Etxeberrietako petrillan gaiñian exerita ta pelaiyuak zatoztin, esaten dizut ba, bere banderakin ta bakizu beren desiflian ta. Ta haikin zeon sarjentua, beste gixajo bat zan hua're sarjentua haikin zeona. Gure anaiya exerita. Ta harena jun petrillea ta "hi ez al dakik bandera pasatzeakoan zutik jarri behar dala?", ta matraillian jo zun, mutikua. Banderakin, pelaiyua, bandera espāñolakin hola zijuaztin ta matraillian jo.

7. Francoren garaian, euskara debekatuta

- **Erref:** AND-045/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:21:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Francoren garaian, debekatuta zegoen euskaraz hitz egitea. Izenak ere ezin ziren euskaraz jarri. Orduko anekdotak kontatzen ditu Gurutzek. Eskolan, Cara al Sol abestu behar izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Geo beste batian, haik jun zian Buruntza bere kuadrillan, ta haik beren izenak ta jarri euskeraz, [...] ta holakok euskeraz jarri. Ta Guardia Zibilla ta komandantzia jun ta ibilli zittuen geo euskerako izenak jarri zittuelako. Ez

zeon [...].

- Ez al zan libre?

- Izena jartzia?

- Euskeraz izena jartzia?

- Galaraziya zeon, zihero, euskeraz hitz eittia're. Pentsa zazu, nik lagun guztiri beti Gurutz esaten diyet, Andoaiñen Gurutz; Ormaiztegin'e Gurutz esaten diyet. "Claro", hara ezkondu ta hemezortzi urte in nittun, ta handik Gurutz. Baiña ofizialki danetan Juan Cruz jartzen det, Francon denboan hasi nintzan Juan Cruz, Juan Cruz, Juan Cruz jartzen, ta oain klaro zeatzea haik kanbiatzen. Iñork ez dik nei esaten lagunak Juan Cruz, iñork ez. Juan Cruz esaten diyet, kanpoko jendiai, "oye, Juan Cruz", ondo ikusten due ta. Ta karreran ibiltzen nitzanian, Juan Cruz jartzen zun, Juan Cruz Ganzarain, "ha ganado la carrera de tal Juan Cruz ha ganado la carrera", Gurutz behin'e ez. Lagunak bai, gaur'e asteazkena, apariya izaten da, asteazkenetan apariya izaten da sozidaden, ta Gurutz danai.

- Ta ordun ez zan libre, zeatikan ez zan libre euskeraz?

- Francok ez zulako ametitzen.

- Ez zun ametitzen?

- Euskeraz hitz eittia, [...]. Esango dizut gaiñea: hemen basarritarrak euskeraz, erderaz ez zakiyen. Guk, nik neonek ez nakin erderaz-ta mutil koskorra ta. Zeozer bai, baiño ezer ez.

- Nola jakin behar zenduen?

- Gaiñea, esango dizut, emakumiak baserrita juten zian esniakin, ta Donostia juten zian. Ta billetia hartu bihar trenian etortzeko, ta eoten zan takillan aurrian bat fusillakin, zea bat, polizi bat, ta "hable usted en cristiano", ta billetia erderaz eskatzen jakin ez, ta trena galdu askotan itten zuen, batek ezagun bat etorri arte hantxe zai; ta ezagun bat "Hi!", "Zer?", ta "Andoaiñeko billetia hartu diak", ta harek erderaz billetia hartu, ta billetia hartzeik ez, "hable usted en cristiano".

- Ta hoi trenian zeoneako, beste nunbait ere eongo zian?

- Kalia ta hitz eitteik ez, erderaz; galaraziya zeon zeharo. Eskoletan ta 'Cara al Sol' kantatu bihar eskolan hasteako, 'Cara al Sol con la camisa nueva que tú bordastes anteayer'. Hoik kanta hoik kantatu bihar izaten zian.

8. "Habla en cristiano"

• **Erref:** AND-045/011

• **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:22:39. **Bukatu:** 00:24:18

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Donostiako tren-geltokian bazen pertsona bat "habla en cristiano" esaten zuena. Donostian gaztelaniaz hitz egitea dotoreziaren seinale zen lehen. Eskolan fraideekin ibili zen La Sallen, eta han ez zituzten zigortzen euskaraz hitz egiteagatik.</p>

Transkripzioa

- Ta ordun esan diazu tren-geltokin eta eoten zala bat bijilantzin "habla en cristiano" iñez?

- Bai, takillan Donostin.

- Takillan eoten zala Donostin. Eta trenian, tren-estaziyuan hola eoten zaneako beste edozein tokitan'e eongo zan ba hola, kalia, atentziyua deitzen zun norbaitte o beti euskeraz hitz eiten zalako?

- A! Kontuz ibili beharrekoa, "claro, claro".

- Kontuz ibili beharrekoa?

- Ordun elegante zan Donostin'e jendia, erderaz ta señoiritak eta erderaz eta ikasten ta hola. Geo kanbiatu da, berriz, oain geo euskeraz, baiño oain euskeraz ezin hitz ein.

- Ahaztu?

- Ni anai zaharrenakin ez det asmatzen erderaz hitz eitten. Bi anaiya zaharrenak hitz eitten zuen alkar erderaz bastante. Ze biyak Lekarozen kolejiuan eendu zian ta ordun bakizu, han erderaz kolejiyuan ta hola. Ta haik hitz eitten zuen baiño gu hirurok topatzen bagiñan, danak euskeraz. Haik ez zuen nerekin asmatzen erderaz hitz eitteik.

- Izaten al zan kastiguikan, kalia edo eskolan?

- Nola?

- Kastigoik, zigorrik izaten al zan euskeraz sumatzen ziñuztenian?

- Hola esateko ez dakit ba nik, hoi esateko baiño...

- Kalia igual ez, baiño eskolan edo?

- Eskolan ez, ez, ez. Frailiakin ibili giñan gu, nazionaletan ta ez zuen euskeraz hitz eitteik, nazionaletan dana erderaz. Ni frailletan ibiltzen nitzen, zeakin, esto saillekuekin ta han... Han erderaz ematen zittuen, baiño ez, frailiek [...]. Oain, nazionaletako berrik ez dakit. Han beste gauz batzuk zian.

- Ta "Cara al sol" kantatu bihar eskolan sartzeko?

- Eskolan kantatzen [...]. Guk prailietan ez hainbeste baiño nazionaletan ta hoitan bai.

9. Errepublika garaian Andoaindik bidali zituzten mojak

- **Erref:** AND-045/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gerra hasi aurretik, eskolan gutxi ibili zen Gurutz. Garai hartan, moja frantsesak zeuden Andoainen, eta errepublikan bidali egin zituzten Frantziara. Gerora, Gurutz Frantziara joan zen gurasoekin moja haiek bisitatzerara. Ama mojekin ikasten ibilia zen.</p>

Transkripzioa

- Eta gerra hasi aurretikan eskolan ibiliko ziñan zu?

- Bai, baiño ni eskolan asko ez, asko ez. Zeatikan gerra denboa hasi zan ta ordun, bakizu, gerra denboran zortzi urte gerrakin. Handik etorri ta geo hasi giñan gu eskolan, gerra bukatu ta geo. Ta aurretikan, goatzen naiz, mutil koxkorra ttiki-ttikiya nitzala, hemen mojak zian; frantsesak moja batzuk, ta han frantsesez ta ordun hemen euskeraz askok ikasi zuen garai hartan. Ta ni mutil koxkorra, ttiki-ttikiya nola jutun nitzen ta hareara, hoi

goatzen naiz. Ta geo hemendikan republika denboan hola zan, Republikak in zittun bialdu, "claro", "el año treintai..." Republika atera, Republikak bialdu zittun hauk. Oker haundiena hoi in zuen hemen. Haik bialdu zittuen Frantzia, berriz. Ta gue ama haikin ibiliya ta haik bixitatzea nola jun nintzan zerea, mojai bixitatzea goatzen naiz. Ta nik mojatetik gaixtua zala esaten nion, ttikiya, mutil koxkorra ta moja komunista esaten nion nik, ttikiya nitzala. Ta haik han jun giñan Frantzia hain bixitatzea amakin ta aitta, ez dakit gu zenbat giñan, umiak zenbat giñan. Ta haik zuen, bere bizi zian tokin, ez zuen zuloik eta hondarra danian. Ez zuen zeik, han hondarra gaiñea, bere... izango zuen. Ta han patiyuan hor dijuanai ikusi ta "ama, ama, hara, hara moja komunista". Nik han ezautu, mutil koxkorra ttikiya baiño, nik ezautu hua. Amak esaten zian "hik ezautu huan ba hua", ta ni... Horregatik, gauz guztik danak burun dazkat, nere suhiya harrittuta eoten da, nik kontu danak nola esaten dizkaten.

- Ta nolaz jun ziñaten ba zuek haik bixitatzea? Haik biali ta gero zan hoi, ezta?

- Bai ba. Haik Frantzian [...]. Gure amak relaziyo haundiya zulako haikin. Gure ama haikin ibiliya baizan, kolejiyo hartan ibiliya. Ta prantsesez ta dana haikin ikasiya. Gure amak'e elizako liburua hil zan arte're frantsesa eramaten zun. Ta dotriña euskeraz ikasi zun harek, dotriña e, aita gure ta hoi, gui eakusten, Elizako liburua frantsesa ematen zun harek. Hil aurretik alabai eman ziyon hua.

10. Gernika gorriek erre omen zuten

- **Erref:** AND-045/018
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:36:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Lehen lan asko zegoen, dena suntsituta eta berregiteko baitzegoen. Gurutz bizikletaz joan zen Gernikara, eta txikituta zegoen. Gernikari buruz izan zituzten lehenengo berriak gezurrak ziren: gorriek erre zutela Gernika esaten zen.</p>

Transkripzioa

- Gerra onduan, lanak bere hortan segittu zun, edo gutxittu in izan edo...?
- Ez, ez, geo ta geo gehio, "claro", dana ein biharra zan-ta. Oain, berriz, oain dao dana iña ta geo lanik ez. Baiño ordun, dana itteko, dana txikituba. "A ver" Gernika nola geldittu zan. Ni bizikletan jun nitzan Gernika ikustea. Ta harea junda, ni goatzen naiz. Ni mutil koxkorra jun harea Gernika ta, "claro", Juntako etxian kontra jarri [...] oso-osoik. Nik ez nekin Juntako etxia zani hua ezar'e. Hua bakarrik oso-osoik, Gernikan dana txikituba, oaindikan goatzen naiz Gernikan aurreko etxia, pareta, holako zabalerako pareta bat zun, holaxen pareta bakarra zeon zutik, dana txikituba. Ta nik hamabost urte itteko nittun oaindikan. "Claro", urte hartan jun nitzan ta.
- Gernikakuan berri nola izan zenduen?
- E?
- Gernikakuan berri nola izan zenduen? Nola aittu zenuen?
- Hemen nola aittu gendun?
- Radiyoz segitzen ziñuen eo nola?

- Bai, periodikuan, baiño gezurra kin, dana. Hemen, periodikun jartzen zun "mira, los rojos que han quemado Gernika" ta, dana hola itten zuen, dana gezurra. "Los rojos habían quemado". Ta nere izeba zanak, harek nei mutil koxkorra ta "mira, mira los rojos lo que han quemado", ta periodikuak utzi, ta sutan ta hola. Geo handikan urteta, beste osoba, aittan anaiya, hari esan niyon, "hola ta hola izebak [...] zian nei". Nik orduako banekin zenek erre zittuna, "hola ta hola esaten zian". Meka... Hasarretu zan hua; Rikardo, aittan anaiya; Labordenian aitzen zan hua're ta "esatia zia k nei, esatia esan nahi nian, alkantarilla zuluan sartuta eondu nintzanen bonbardeoko garaiyan". Hua alkantarillako zuluan sartuta, gordeta. Bakizu, itten zuen bonba bota ta ametraillatu goitik behera, ametraillatu itten. "Esatia zia k nei gorrik erre zuela!"

11. Gernika alemanek bonbardatu zuten Francoren esanetan

- **Erref:** AND-045/019
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:36:09. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gurutzen lagun bat Gernikan egon zen bonbardaketa gertatu zenean: hark izandako bizipenak kontatzen ditu Gurutzek. Gerora, lagun hura Afrikan egon zen, eta han galdetu zioten nork bonbardatu zuen Gernika: ez zuen dudarik izan alemanak eta Franco izan zirela erantzuteko.

12. Gernikako bonbardaketatik babesteko, zuloan sartuta

- **Erref:** AND-045/020
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:40:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gernikan bonbardaketa izan zenean, Gurutzen lagun bat han zen: zulo batean egon zen gordeta etzanda. Bonbardaketaren eguna feria eguna zen Gernikan.</p>

Transkripzioa

- Gernika aldian, bonbardaketa eta, bueno, Gernikan ta beste herri askotan bonbardatzen...
- Gernikakua bezelakoik ez. Ni ez nitzan han bonbardatzen. Ni geo jun nitzan.
- Ordun, jende asko're ihesi zihoan Santander aldea eo?
- Nere laguna, oain dala urtebete hil zan, beste bat, Bixente, hoixe korrika ta ibiltzen zana, famosua zan hoi. Ta hua're mutil koskorra han harrapatu. Ta harek hala esaten zian nei, hil baiño bi hillabete lehenaotikan, hizketan alkarrekin ta hala esaten zian: hua zulo batian eondu omen zan, hola zulo bat ba omen zan ta han etzanda eon omen zala hua. Han Gernikan

harrapatu hua're.

- A ze txikiziyua izango zan ordun.

- Bai. Danak [...] sartuta ta Don Eugenio apaiza hemengua zana, hua're bai, beste alkantarilla batian sartua hua're, ahal zun tokin. Gaiñea, feria eguna izan bihar zun ta, feria galanta, jendia besteik ez zan, ta jota goittik ametrailladorakin botatzen omen zittuen.

- Abiona handik ta abiona hemendik.

- Abionetak. Preparatzen haik orduako.

13. Kartzelako agonia "libertad absoluta" emango ote zieten beldur

- **Erref:** AND-045/022
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:41:19. **Bukatu:** 00:43:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita ia fusilatu egin zuten. Ondarretako kartzelan fusilatzen zituztenei ez zieten apaizarekin konfesatzen uzten hil aurretik. Errekete fin bat horretaz enteratu zenean, ordean, denek izan zuten apaizarekin egoteko aukera hil aurretik. Aitarekin kartzelan izandako mutil gazte bati buruz hitz egiten du Gurutzek. Kartzelako eguneroko agonia kontatzen du Gurutzek: "libertad absoluta" esaten zieten fusilatzera eramaten zituztenei.</p>

Transkripzioa

- Gure aitta're afusilatzeke sartu zuen. Gaiñea, esango dizut, Ondarretako kartzelan, afusilatzen zittuen konfesatu gabe; ta "un sacerdote, un sacerdote" eske hola ibiltzeko ta gabian, "sacerdote, sí, pa' vosotros", gabian geo hamabitan, patiyuan akatzen omen zituen. Ta kartzelan, Ondarretako kartzelan, hoi aittai aittuta daxkat e? [...] builla ta eskandalo pixkat han, ta reketen bat nunbait fiña izan hua, ta harea jun ta ikusi du hango [...], "¿qué pasa aquí?, ¿qué pasa aquí?", "que nada, que les están afusilando sin confesar", "¿Cómo?" "Y tal". Harek maitu omen zun, handikan aurrea afusilatzen zituenak konfesatuta hiltzen omen zittuen. Ta gure aittak esan zun, nei esan zian, asturiano gazte bat emen zan; hua're afusilatzeke, ta hala esan zuen gue aittai "a mi madre, a mí ya me enseñó a rezar". Baiño hua're komunistakin ta ibiliya. Gaztia e, mutil koskorra oaindik, hamasei-hemezortzi urte o hola izan bihar zittun, gaztia. Ta harek hala esan omen zun "a mí, mi madre ya me enseñó a rezar, pero". Ta gure aitta gau guztin harekin errezuan aittu omen zan, gau guztin. Ta aittak ekarri zun geo harek emandako pluma estilografika bat zun, harek "esto ya no me hace falta mí", ta kazadora gamuzazko larruzko bat. Nik denboa askon ibili nun kazadora hua geo, haren rekuerduta ta; geo desapareze zittu zan hemen, kazadora gazte harena; "mi madre ya me enseñó a rezar" baiño... Handikan aurrea konfesatuta hiltzen emen zittuen. Baiño txarrena emen zan, gaba aillegatu, eunez lo itteik ez, ta gaba aillegatu ta "hoy me va tocar a mí, hoy me va tocar a mí" ta loik ezin in. Zea, deitzen emen zuen gabian hamabitan, "fulano tal, fulano tal, libertad absoluta", "menuda libertad tengo yo". Gabian, geo, tiruak patiyuan. Hurrengo eguna aillatzeko, ta loik in be. Gaur aillegatu ta loik ezin in.

- "Libertad absoluta"?

- "Libertad absoluta" bai, "libertad absoluta" patiyoa ta afusilatu. Hori esanda ateatzten emen zittuzten; "venga! Fulano de tal, fulano de tal: libertad absoluta", "sí, menuda libertad tengo yo", "al patio", "descarga".

14. Gurutzen aitaren epaiketa eta hitzaren indarra

- **Erref:** AND-045/023
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:43:34. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita Ondarretako kartzelatik Burgosko kartzelara eraman zuten. Harako bidean, aita Gurutz ikusi zuen autobusetik eta eskuarekin agurtu zuen. Gerran epaiketarik gabe fusilatzen zituzten gizonak: Gurutzen aita izan zen lehenengotarikoa epaiketa izan zuena. Epaiketa hartan aitaren eta epailearen jokaerek garrantzi handia izan zuten. Epaketan gertatutakoa kontatzen du Gurutzek.

15. Aitona fusilatua izatetik libratu zuten

- **Erref:** AND-045/024
- **Iraupena:** 0:06:29. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:55:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aitona Arantzazun gordeta egon zen gerra garaian. Aitona urte askoan egon zen Bergaran "Banco Guipuzcoano"ko zuzendari. Han zegoela, salatu egin zuten eta fusilatzeko agindua eman; baina aitonak salbatzea lortu zuen ingurukoen gizatasunari esker. Aitonaren istorio hunkigarria kontatzen du Gurutzek.

16. Aitaren duintasuna pasatakoak pasa eta gero

- **Erref:** AND-045/026
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:57:43. **Bukatu:** 00:58:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gerrari buruzko gogoetak. Aitak pasa zuena ez lioke beste inori egingo.

Transkripzioa

- Anaian arteko gerra izan omen zan ta [...].

- Bai, anaian arteko gerra...
- Kasuak izango zian, etxe berian?
- Ez, ez. Anai arteko gerra, ez; hemen gerra... Bai, geo hemen... Ta etorri zianak? Franco etorri zan Afrikatikan, hua anai artekua al zun harek. Ixtorik. Gure aittak amai hala esaten ziyon: "Dolores", askotan hitz eiten zuen erderaz ta, "Dolores, lo que me han hecho a mí, prefiero que me han hecho a mí que yo hacerle a otro. Yo estoy tranquilo" esaten zun harek. Gaixtua zalako, baiño hil zanian elizan tokiyik ez jendiantzako, jendia kanpuan ta dana eliza dana bete.

17. Aguazila fusilatu zutenekoa

- **Erref:** AND-046/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:02:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gurutzen amaren lehengusina baten senarra herriko aguazila zen, gizon ona, Gurutzen esanetan, eta fusilatu egin zuten.

18. Aita preso Burgos eta Leongo kartzelatan

- **Erref:** AND-046/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:02:18. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita Burgos eta Leongo kartzelatan egon zen preso. Itzuli zenean ezin omen zen janariarekin ase.

19. Maistrari ilea moztu

- **Erref:** AND-046/004
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gurutzen aitaren arreba maistra zen. Komisariara aurkezteko eskatu zioten eta ilea moztu zioten. Etxera bidali zuten gero. Gurutzek dio orduan sufritutako lotsak eta umiliazioak utzitako arrastoek gaixotu arazi eta hil zutela izeba.

20. Centro Republicanoan istiluak maiz

- **Erref:** AND-046/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:07:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Andoaingo Centro Republicano eta batzokia gogoan ditu Gurutzek. Aitak batzokira eramaten zituen bera eta anaia, eta etxera bueltan, korrika txikian pasa arazten zituen Centro Republicanoaren aurretik.

21. Gerra garaiko Zarauzko etxea

- **Erref:** AND-046/007
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Gerra garaian bi gudarik eraman zituzten Gurutz-eta Donostiatik Zarautzera, gurasoak han zeudelako. Gaztetxo zen Gurutz, baina orduko etxea gogoan izan du beti.

22. Itsasertzean jostaketan

- **Erref:** AND-046/008
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bi hilabete inguru egin zuten gurasoek Zarautzen. Gerra izan arren, Gurutzek ongi gogoan ditu hondartzako jostaketak. Zarauzko hondartzako pasealekua ez zen gaur egungoa bezalakoa.

23. Etxeberrietarrak kaletarren kontra

- **Erref:** AND-046/009
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Etxeberrietarrak kaletarren kontra gerra-jostaketan ibiltzen ziren tiragomarekin. Norgehiagoka handiak ibiltzen zituzten, bai eta San Juanetan ere, nork larra gehiago bildu eta zeinek surik handiena egin.

24. Villabonatarrak harrika bidaltzen

- **Erref:** AND-046/010
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:14:08. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Villabonatarrak harrika bidali ohi zituzten herritik, baina haietako asko bonba fabrikan lanean hastearekin batera eten zen joera hori. Andoaingo Euskalduna futbol taldeak beste herrien kontra jokatzen zuenetan mutur joka amaitzen ziren partida asko eta asko.</p>

25. Tiragoma beti patrikan

- **Erref:** AND-046/012
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Errekako harri borobilduak eta burdin puska puntadunak botatzen zituzten tiragomarekin. Gurutzek burdinazko kaskoa ibiltzen zuen halako jostaketak zirenean. Oraindik gordeta dauzka orduko tiragomak eta kaskoak.

26. Pistolarekin txori-ehizean

- **Erref:** AND-046/013
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:19:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txatarra artean pistola bat topatu zuten gazteak zirela. Pistola eskolan konpondu eta txori-ehizean ibiltzeko erabiltzen zuten.

27. Erreketeek Debako alkatea hil

- **Erref:** AND-046/014
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:19:02. **Bukatu:** 00:20:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Andoaingo eta Debako nazionalistek herriko erreketeak babestu omen zituzten

Gerra Zibilean, gorriek fusilatu ez zitzaizuten. Gerra aurrera joan ahala gauzak aldatu ziren, ordea. Frente Nazionalekoak nagusitu zirenean, erreketeez ez zieten nazionalistei tratatu bera eman. Adibide gisa, Debako alkateari gertatua jartzen du Gurutzek.

28. Lehendabiziko karreran garaile

- **Erref:** AND-046/016
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:21:07. **Bukatu:** 00:22:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Bizikletan ibilitakoa da Gurutz, profesional izandakoa. Bere lehendabiziko karrera Aieten korritu zuen, mutil kozkorra zela, eta garaipena lortu zuen, gainera.

29. Helmugara arrastaka heldu

- **Erref:** AND-046/017
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:22:01. **Bukatu:** 00:24:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bere kirolari ibilbideko hastapeneko karrerak nolakoak izan ziren kontatzen du Gurutzek. Behin, etxekoei ezer esan gabe hartu zuen parte lasterketa batean, eta tropela Andoaindik pasatzen ari zela, aita jendartetik garrasika hasi zitzaion, geratzeko eta geratzeko. Gurutz ez zen geratu, ordea. Hala ere, eta lehenengo postuan helmugaratzera zihoala, erori egin zen. Helmugako marraraino arrastaka heltzen saiatu bazen ere, ezin izan zuen karrera hura irabazi. Gerora bai. Gerora hainbatean izan zen garaile.

30. Profesionaletan garaipen mordoa I

- **Erref:** AND-046/018
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:24:12. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Esprinter azkarra izan da Gurutz eta profesionaletan karrera asko irabazitakoa: Tolosan, Eibarko sariketa, Ordizian hiru aldiz, Beasainen, Legazpin, Antzuolan, Donostian, Zarautzen, eta Bizkaiko hainbat eta hainbat herritan ere.

31. Profesionaletan garaipen mordoa II

- **Erref:** AND-046/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Aitonak ez omen zituen begi onez ikusi Gurutzen hasierako bizikleta gainera ibilerak. Aita, ordea, segituan bilakatu zen semearen jarraitzaile fin, eta karrera guztietara laguntzen omen zuen. Denborarekin, Gipuzkoako txapeldun izan zen afizionatutan eta profesionaletan, errepideko fondoko txapeldun ere, "Campeonato Vasco-Navarro" delakoan, eta ziklokroseko lasterketetan ere garaile izan zen. Soldaduska egiten aritu zela ere Burgosen eta Iruñean korritu eta irabazi zuen.

32. Anaiari bizikleta hartu

- **Erref:** AND-046/020
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Gurutzen aitak Frantziatik ekarri zuen lehen bizikleta etxera. Gero anaiak bizikleta on bat erosi zuen, BH markakoa, eta katearekin lotuta gordetzen bazuen ere, Gurutzek katea hautsi eta bizikleta harekin ibiltzera ateratzen zen.

33. Espartin eta galtza motzekin bizikletan

- **Erref:** AND-046/021
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gurutzek dio bere garaian ez zela bizikletan ibiltzeko arropa berezirik, eta galtza motzak eta espartinak jantzita ibiltzen zirela karreratan.

34. Espartinak erosteko dirurik ez

- **Erref:** AND-046/022
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:28:44. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Espartinak aipatu eta Andoaingo familia txiro baten pasadizoa etorri zaio Gurutzi gogora.

35. Kaskorik ez

- **Erref:** AND-046/023
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:31:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Gurutzek karrera korritzen zituen garaian ziklistek ez zuten kasko edo buruko babesik janzten. Bere lagun bat bizikletatik erori eta buruan kolpea hartuta hil zen.

36. Federazioa eta txirrindulari karneta

- **Erref:** AND-046/024
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:31:39. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Txirrindularien federazioa bazen, eta txirrindulari agiria ezinbestekoa zuten lehiatzen jardun nahi zuten guztiek.

37. Karreran bakoitzak berea egin behar

- **Erref:** AND-046/025
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:34:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gurutzek korritzen zuen garaian ez zen egungo "erosotasunik". Gurpila zulatuz gero, norberak aldatu behar izaten zuen, eta jatekoez eta edatekoez ere norberak arduratu behar izaten zuen.

38. Euskara batuan hainbat akats

- **Erref:** AND-046/028
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:36:52. **Bukatu:** 00:38:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gurutzentzat ezberdinak dira euskara batua eta aurrez tokian tokian egiten zen euskara. Euskara batuan ohikoak diren akats batzuk aipatzen ditu.

39. "Eduki" eta "izan"

- **Erref:** AND-046/031
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:40:07. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gurutzek dio, sarritan, gazteleraz pentsatu eta euskaraz esaten ditugula gauzak, eta baita hanka hondoraino sartu ere. Bilera bat ezin omen da "eduki".

40. "Hika" aritzeak iraun du; "berorikak" ez

- **Erref:** AND-046/034
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:42:52. **Bukatu:** 00:44:42

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Seme alaba eta familiakoekin hika egiten du Gurutzek. Garai batean, berorika egiten zien alkateari, apaizari eta medikuari. Gaur egun zuka egiten die halakoei, berorika egiteko ohitura galdu egin delako batetik, eta</p>

41. Amak euskarazko liburuak erre

- **Erref:** AND-046/036
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:45:31. **Bukatu:** 00:47:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Gramatika

Laburpena:

Aitonak eta amak euskarari buruzko liburu eta dokumentu asko zituzten, baina errearazi zituzten, kartzelan zen aitaren kaltetan izango ziren beldurrez.

42. Dibortzioaren kontra

- **Erref:** AND-046/040
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:54:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Leaburuko apaiz bat bai omen zen, bertsolariekin gai-jartzaile lanetan ibiltzen zena. Behin, Manuel Lasarte bertsolaria dibortzioaren kontra kantari jarri zuen, emaztearengandik banatuta hemeretzi urte zeramatzala jakin gabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com